

INDUSTRI PRODUKZIOAREN INDIZEA (IPI), 2006KO URRIA

Euskal AEko industri jarduera %4,7ko urte arteko tasara hazi zen 2006ko urrian


Urteko lehen hamar hilabeteetan %4,3ko hazkunde metatua egon da, 2005eko aldi beraren aldean.

EUSTATEk landutako datuen arabera, 2006ko urrian %4,7 hazi zen Euskal AEko industri produkzioa lan-egutegiko baldintza homogeneotan, 2005eko hil beraren aldean. Urteko lehen hamar hilabeteetan %4,3ko hazkunde metatua egon da, 2005eko aldi beraren aldean.

Urtaroen eragina zuzenduta, 2006ko urrian %0,2 hazi zen industri produkzioa, 2006ko irailarekin alderatuta.

Euskal AEko Industri Produkzioaren Indizearen urte arteko hiruhileroko hazkunde zuzendua

% hazkundera



(*) 2006ko urriko urte arteko hazkunde zuzendua

Iturria: Eustat

Sektore-bilakaera

Sektoreka, industri sektore handien sailkapena kontuan hartuta, 2006ko urriko indizearen bilakaerak honako aldakuntzak izan zituen, 2005eko urriaren aldean: Ekipo-ondasunak %10,0 hazi ziren; Bitarteko ondasunak %3,8 igo ziren; Kontsumo-ondasunek %1,6ko gorakada izan zuten, Kontsumo-ondasun iraunkorrek (%3,6) eta

Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrek izandako igoeren eraginez; baina, Energia %2,8 jaitsi zen.

2006ko irailaren aldean, 2006ko urriko hil arteko aldakuntzaren zeinua bestelakoa izan zen industri sektoreetan. Ekipo-ondasunek hil arteko %1,5eko gorakada izan zuten; Bitarteko ondasunak %0,6 igo ziren aurreko hilaren aldean; eta Kontsumo-ondasunak %1,1 hazi ziren aurreko irailarekin alderatuta, Kontsumo-ondasun iraunkorrek (%2,1) eta Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrek (%0,6) izandako igoeragatik. Energia %3,4 jaitsi zen aurreko irailarekin alderatuta.

Bilakaera lurralde historikoaren arabera

Lurralde historikoei dagokienez, Industri Produkzioaren Indizearen urte arteko bilakaerak ezberdinak izan dira hiru lurraldeetan: Araban %2,4 jaitsi da, Bizkaian %5,6 igo da eta Gipuzkoan %7,8ko gorakada izan du.

2006ko irailaren aldean, 2006ko urriko hil arteko tasak hauek izan dira hiru lurraldeetan: Araban %2,1 jaitsi dira, Bizkaian %0,1 egin dute behera, eta Gipuzkoan %1,8 igo dira.

Taula: 2006ko urria. Euskal AEko Industri Prezioen Indizearen aldakuntza-tasak (%)

Kontzeptua	Zuzendua		Desestazionalizatua	
	Urr06/Urr05	At/At-1 (1)	Urr06/Ira06	Ira06/Abu06
Indize orokorra: Euskal AE	4,7	4,3	0,2	-3,0
Araba	-2,4	2,4	-2,1	-8,8
Bizkaia	5,6	4,9	-0,1	0,0
Gipuzkoa	7,8	4,8	1,8	-2,9
Indizeak helburu ekonomikoka- Euskal AE				
Kontsumo-ondasunak	1,6	-0,6	1,1	-1,5
-Kontsumo-ondasun iraunkorrak	3,6	0,0	2,1	-3,0
-Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	0,5	-0,9	0,6	-0,7
Ekipo-ondasunak	10,0	8,4	1,5	-7,4
Bitarteko ondasunak	3,8	2,0	0,6	0,4
Energia	-2,8	8,4	-3,4	3,2

(1) t urteko urtariletik azken hilera arteko aldi metatuaren urte arteko aldakuntza-tasa, t-1 urtearen aldi berdinen aldean

Iturria: Eustat

Informazio gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxe: +34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel:+34-945-01 75 06 Faxe:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp